

iruner

188. zenbakia. 2010eko azaroa

Gaztelumendi,
Euskal Herriko Pintxo
Txapelketako finalean



Hori bizitza! atal berria: bizitza gorabeheratsuko pertsonen kontakizunak



Jose Angel Sodupe: "Bidasoaren egoera ekonomikoa oso txarra da"



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzaileen batekin.

Zoaz kruzeroan!!

Sartu zaitez bi
pertsontzako
bidai baten
zozketan
Ametsen
erosteagatik



Promozio honen balioa 2010 Azaroak 1etik Abenduak 31 arte

Gutxieneko erosketen zenbatekoa 500 Euro

sukaldeak | egongelak | bainuak | logelak | dekorazio komplementuak

Tekniko eta dekorazio proiektuak

Kompromezu gabe egiten ditugu presupuestuak

Altzariak zure etxera eramatea eta jartzea dohainik

4.000 m2 altzarien erakusketa



Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304
IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

Aurkibidea

4.- *Lapikoan:*

- Hori bizitza! Bizitza gorabeheratsua izan duten bi pertsonaren biografia laburra.
- Irun Hiria Argazki Lehiaketako sarituak.
- Katea auzoko Ametsak proiektua
- Klean Baik 9 kide gehiago ditu

12.- *Kirolak:*

- Bidasoa Kirol Kluba, kinka larrian.
- Santiagotrek klubaren eguna ospatu zuten.
- Kirolaren Jaialdian kirolari eta sustatzaile onenek sariak jaso zituzten.

16.- *Gai Nagusia:* Gaztelumendi Antxon, Pintxo Txapelketako finalean.

19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

20.- *Kolaborazio literarioa.* Ainara Maia.

22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa:* Heriotzari begira.

24.- *Eleak iruten*

25.- *Lerroz lerro.* Lander Garro
Kontrarioa

26.- *Kultur Agenda*

28.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak.*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

Hori bizitza! izeneko atal berri honetan bizitza gorabeheratsuak izan dituzten pertsonen biografia laburrak eskainiko ditugu.

Marcelo Usabiaga



“Oso gogorra izan zen kartzelan egotea fusilatuko zituzten gizonekin”

Bizitza gorabeheratsuen peskizan abitu ginen; baina Marcelo Usabiagak (Ordizia, 1916) harago eraman gintuen, historian amilduta odisearen pareko kontakizuna eskaini baitzigun.

Laurogeita hamalau urteko gizon honek bizi-bizi gogoratzen du Gerra Zibilak zeharo markatu zuen bere bizitzaren inguruko xehetasun ñimiñoena ere. Ibilbide hartan Irun behin eta berriro agertzen da, ekidin ezineko patua bailitzan.

Aitaren lanbidea zela eta, familiarekin Irunera bizitzera etorri zen bost urte zituela. 1933an Gazteria Komunistetan afiliatu zen. Hura izan zen, bada, behin baino gehiagotan heriotzaren

atariraino eraman zuen ibilbi-dearen abiapuntua. “Ni beste bi lagunekin batera alderdiaren aldizkariak banatzera joan ohi nintzen. 1934an –eskubiak boterea berreskuratu zuenean–, bi lagunak atxilotu eta 30 urteko kartzela zigorra ezarri zieten. Ni libratu nintzen ez nindutelako ezagutu”.

1934ko Asturiaseko meagizonen matxinatzeko saioak zapalkuntza bortitza ekarri zuen. Testuinguru hartan, Marcelok lehendabiziko misioa aurrera eramateko enkargua jaso zuen. “Meagizonei Donostiatik Frantziara igarotzen lagundu behar nien. Ez nuen haiekin hitz egin behar; tren geltokian egunkari bati besapean eustea zen nire seinalea. Dena ongi joan zen, harik eta mugimendu komunistan sartu zitzaizgun Falangeko infiltratu batek salatu zuen arte”.

Gerraren hasiera

1936ko uztailaren 18ko altxamendua gertatu zenean Marcelo Kostorbeko tren geltokian bizi zen, aita tailerreko nagusia zelako. Irungo defentsaren alde errepublikarrekin “saltsa guztietan” parte hartu zuen. Defentsaren antolatzaile Cristobal Errandoneak esandakoa du gogoan: “*Erlaitz galdu dugu. Nola edo hala berreskuratzea behar dugu.* Orduan fusil bana eman ziguten –nik ordura arte ez nuen armarik erabili–. Txintxarriak entzunez gero kontuz ibiltzeko esan ziguten, erreketean trikimailua zelako, arkumeekin nahas genitzan erabiltzen zutena. Ez genuen inor topatu, baina kide bati pistola lurrera erori eta tiro egin zidan orkatilean”.

Irun galdu ondoren, Usabiaga hainbat delituz salatua izan zen, larrienak Irun erretzeaz eta jendea fusilatzeaz. Estualdi hartatik berriro onik atera zen, nori eta moja bati esker! “Bai, orkatilla sendatu zidan mojaren lekukotza erabakigarria izan zen, faxistek Irun hartu zutenean ni ospitalean nengoela deklaratu zuen eta. Lekukotza hari esker, soilik 30 urteko kondena ezarri zidaten, *gorri separatista* akusaziopean”. Marceloren anaia Pikoketan fusilatu zuten, eta

Marcelo zenbait aldiz heriotzetik hurbil egon zen

arreba Frantzian hil zen, kontzentrazio-esparru batean.

22 urte kartzelan

Sagunton hasi zen 22 urte iraungo zuen kartzela zigorra. Kontakizunari heltzean,

Marcelori zintzurrian korapiloa egiten zaio. “Oso gogorra izan zen fusilatuko zituzten gizonekin gela konpartitzea”. Lagun bat fusilatzeraren eraman zuteneko pasarte ahaztezina du. “Kamioi batean sartu zituzten 60 bat gizon eta emakume. 40 bat fusilatuak zituztela, indultu agindu bat iritsi zen, hain zuzen nire lagunarentzat!”

Aitaren harremani esker, Usabiaga Gipuzkoara ekarri zuten, kondena obretan lan eginez betetzen jarrai zezan. Arroako zementu-fabrikari ari zela, ihes egitea erabaki zuen, zementuaren %50 Alemaniako nazien-tzat zela jakin ondoren langileak makinak sabotatzen hasi zirenean. “Zuzendaritzak sabotaiaren berri izan zuenean, lagun batzuekin hanka egitea beste erremediorik ez nuen izan”. “Hendaian aspaldiko lagun komunista batekin topo egin nuen, Frantzian *makien* nagusia zena. Frantziatik Espainiara gertlariak pasatzeko sarea antolatzeko konbentzitu ninduen. Halako batean, taldekide bati bidean erori zitzaion armaren pieza baten erruz, Donostian atxilotu gintuen, nork eta Meliton Manzanasko polizia-buruak! Irunera ekarri ninduten, baita zenbait astinaldi eman ere. *Hauek mugitzen badira, lau tiro eman eta kitto*, esan zuen Manzanasko bel-durgarriak. Ni kamioi batean sartu ninduten. Fusilatzerari Plaiiundira ninderamatela pentsatuta, nire buruaz beste egitekotan egon nintzen. Zorionez, beste komisaldegia batera sartu ninduten eta handik Cadizeko kartzelara”. Azken 15 urteak Burgoseko presondegian eman zituen, hantxe sartu baitzituzten Espainiako preso komunista guztiak. 1960an aske utzi zuten, eta handik bi egunera ezkondu zen.



“Frantzian harritzen ziren Espainiako produktu industrialak eskaintzen genizkienean”

Gurasoak Bidasoaren hego ertzekoak zituen hendaiarra da. Andoni, saltsa guztietako perrexila ez ezik, baratxuria ere badela esatea ez da gehiegikeria. Gaztetatik euskararen eta kulturaren militantea izaki, Hendaiako ikastolaren jaiotza bultzatu zuen, baita Akelarre elkarte eta Endaika trainerua ere. Sokoia enpresaren sortzaileetako bat ere bada.

Ama hondarribiar eta aita irundarraren hendaiarra da Andoni. “Bidasoako jabea naiz” dio txantxetan. Gurasoak Gerra Zibileko errefuxiatuak zirelako, Bidasoaren iparraldean munduratu zen, hain justu alemaniarrek Frantzia hartua zuten garaian. Horregatik, ea euskal-espainola ala euskal-frantsesa den galdegiten diotenean berak euskal-alemaniarra dela erantzuten du.

Aitaren burugogorkeriari esker, etxarritarren etxean euskarak ez du belaualdi bateko hutsunea. Ez zen hura lan makala, kontuan hartuta bertako semea izan arren herrian nagusi zen frantziar eliteak atzerritar sentiarazten zituen iheslarien koloniako kidea zela. “Bai, *español caracol* deitzen gintuzten eskolan”, gogoratzen du Andonik, saminez.

Aita arrantzari lotu zitzaion eta, garaiko gehien antzera, baita kontrabandoari ere. Hain urriak ziren produktu industrialak mugaren hegoaldera itsasoz pasatzeko lan hartan Andoni gartzetxoa laguntzaile izan zuen.

Sokoaren sorrera

Laster Enbata elkartean euskararen eta kulturaren militantziari ekin zion. “Lapurdi baliabide ekonomiko eskasekoa zenez, bada, Enbatako lagun taldeari Espainiako produktuak Frantzian saltzeko enpresa bat sortzea bururatu zitzaizgun”. Halaxe, 1971n Sokoia eratu zen, plantxak eta hodizko altzariak esportatzeko. “Piezak erosi eta lau lagun artean montatzen genituen hasieran. Pentsa! Gaur egun bulegoko aulkien Frantziako fabrikarik handiena bilakatu da. 240 langile ditu, horietatik %40 enpresako azkizidun da”.

Frantziarrek Espainia zezenekin eta flamenkoarekin identifikatzen zuten herrialde atzeratua zen testuinguru hartan, Sokoakoen lana ez zen samurra. “Frantzian harritzen ziren produktu industrialak eskaintzen genizkienean. Hain

Gerrako iheslariak atzerritar sentiarazten zituzten Hendaian

zabaldua zegoen irudiaren kontra kalitatezko gaiak zirela konbentzitu behar genituen”.

Hendaiako ikastola

Ordurako bazegoen Hendaian ikastola bat eraikitzeke asmoa, eta irundar jatorriko Mitxelena

apaiza Andonirengana hurbildu zen helburu hura betetzekotan. Lana nahiko aurreratua zutela, apaizak ikastola konfesionala eta euskara batua erabiliko ez zuena eraikitzearen alde agertu zen. “Hor talka egin genuen, guk proiektu laikoa nahi genuelako. Horra nola orduko auzapezak, Errecart jaunak, egoitza bat zabaldu eta gero 1971n sortu zen Gure Ikastola, 6 umeko talde batekin”. Mitxelenak, ordea, ez zuen atzera egin eta beste ikastola sortu zuen, Xitoak izenekoa; baina handik urte batzuetara bertan behera geratu zen .

Akelarre eta Endaika

Hendaiako gizartea euskalduntzen ari zen, baina ez zegoen hartarako babesik. “Kultur grina bideratzeko, 1973an, beste lagun batzuekin batera, Akelarre kultur taldea sortu nuen”. Kulturaren ildotik jarraituz, 1988an Endaika arraun taldea eratu zuen, “hortik abiatuz itsas ondarearen alde lan egiteko jendea bilatzeko asmoz”. Gauzak, ordea, ez ziren joan berak nahi bezala eta kirola nagusitu egin zen.

Hondarribiarrek eman zieten 1965eko traineru zahar bati esker, arraunaren lanari lotu zitzaizkion. Pasaiaiko taldearekin hiru urtez ikasi ondoren, handik atera ziren bi arraunlari, bat Hondarribirako eta bestea Pasaiarako, biak Donostiko Kontxan arraunean arituak. Beste hiruzpalau Santiagotarren tostetan sartu ziren. “Orain tosta mugikorrek taldea dugu Endaika, baita arraun-eskola polita ere”. Hasierako xedeari heldu nahian, laster itsas ondarearen elkarte sortuko dela iragarri du Andoni nekazkinak. Hori guztia gutxi balitz, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen alde lanean dihardu.

Irun Hiria Argazki Lehiaketako saritu guztiak



1.- Irun gaia. Lehen Saria: *Puentes del Bidasoa*. Egilea: Oskar Gaskon



2.- Irun gaia. Hirugarren Saria: *Miradas*. Jesus Hernandez. 3.- Irungo parte-hartzaileentzako sariak. Lehen Saria: *I*. Montse Coca. 4.- Irun gaia. Bigarren Saria: *Los campeones en Ficoba*. (Kolorrez). Pablo Arpon. 5.- Bigarren Saria: *Homeless III*. (Kolorrez). Mikel Prado. 6.- Irungo parte-hartzaileentzako sariak. Bigarren Saria: *Día a día II*. (Kolorrez). Iñaki Berregi.

Peio Urtxegi" Ohorezko Saria. *Calles de Fez*. Egilea: Xavier Ferrer Chust. (Kolorez)



- 1.- Laugarren Saria: *Marina II*. Egilea: Rafa Herrero.
- 2.- Lehen Saria. *Sur la neige I*. Egilea: Luis Nieto Andia.
- 3.- Irungo parte-hartzaileentzako sariak. Laugarren Saria: *Metro-La salida*. Luis Irisarri.
- 4.- Hirugarren Saria: *Luchadores II*. Egilea: Javier P. Fernandez. (Kolorez)
- 5.- Irungo parte-hartzaileentzako sariak. Hirugarren Saria: *Ahmet*. (Kolorez). Egilea: Andres Indurain.

Erakusketa, Amaian abenduaren 12ra arte.

Ametsetako auzoa

Katean *Auzoaren Alde* koordinakundea sortu dute, auzoa alor guztietan hobetzeko xedez.

Katea auzoak betidanik izan du ekintzaile eta borrokalari ospea, akaso, hirigunetik urrun dagoenez, herria dirudien auzoa delako. Oraingoan, urrats bat harago, plazara atera dira bateginik aintzindari den egitasmoa aurkeztera. Xedea ez da makala, alor guztietan ametsetako auzoa bilakatzea nahi dute eta. Lehendabiziko ekimena auzoko elkarte guztiek osatutako koordinakundea sortzea izan da. “Proiektuaren jatorria Elatzeta eskolan abiarazitako Ikas-Komunitateak izeneko egitasmoa izan zen”, azaldu digu Koordinakundeko kide Josetxo Arrietak. “Helburua denon partaidetzaz ametsetako eskola eraikitzea zen. Bada, zergatik ez dugu gure komunitate txiki honetan, auzoan, alegia, gauza bera egiten?”. Eta dagoeneko lanari lotu zaizkio, ilusioz lotu ere. Hasierako fasea auzoko hainbat tokitan ipini diren kaxetan nahiz posta elektronikoz – ventasauzoarenalde@gmail.com – bizilagunen ametsak jasotzean datza. Zahar nahiz gazte, Kateako jende guztia deituta dago auzotarren bizi-



tza atseginagoa egingo duten iradokizunak egitera. Bilketa prozesuaren ondoren, Koordinakundeak ametsak sailkatuko ditu, eta lehenetsunak ezarriko. “Badakigu amets guztiak ez direla gure esku egongo – dio Josetxok –, batzuk eskatzekoak izango direlako”. Horregatik, otsailerako prozesua amaitu nahi dute; hain zuzen, udal hauteskundeak baino lehen alderdi politikoei aurkezpena egin aldera.

Auzoaren Alde bloga

Koordinakundea egiten ari den proiektuaren hedapen lan horretan, blog sortu berria da oinarrietako bat. Bertan, jakingarri guztiak topa daitezke, baita ekarpenak egin ere.

www.auzoarenalde.blogspot.com

Kalean Bai planari 70 elkarte atxiki zaizkio dagoeneko



Kalean Bai planaren V. sinadura ekitaldian parte hartu zuten elkarteetako ordezkariak, alkatearekin, Kultura zinegotziarekin eta Irun Iruteneko lehen-dakariarekin.

Joan den urriaren 26an Irungo beste 9 elkarteek euskara erabiltzeari bai esan zioten Kalean Bai plana sinatuz. Honenbestez, Irungo Udalak Irun Iruten euskara elkartearen bidez duela zortzi urte abian jarritako ekimen honi 70 elkarte atxiki zaizkio.

Hauexek dira hitzarmen orokorraren sinatzaile berriak: Alaikiro IGE (guraso elkarte), Erroibide saskibaloia, Gordezan, Nicolas Guerendiain, Ttipi Tapa Aisi Taldea, El Pilar IGE, Gaurko Andreak, Lagun Artean eta

Oxinbiril IGE:

Bestalde, dagoeneko plankideak diren beste 9 elkarteek hitzarmen espezifikoa sinatu dute; alegia, harmaila bat gehiago igo eta euskararen aldeko konpromisoa areagotzea erabaki dute. Hauek dira: Aurreratu Elkarte, Bidasoa Judo Elkarte, Gazte Landetxa, Irungo Atsegiña, Txingudi Saskibaloia, Betti Gotti Elkarte, Eguzkitzako IGE, Gordezan eta Kurpil Kirolak. Irungo Udalak, plankide guztiei esker ona adierazteko, *txalotze kanpaina* abiaraziko du.

Bide berdeak Doneztebe eta Lapurdiko Getaria lotuko ditu 2012rako

Lapurdiko Getaria eta Doneztebe lotuko dituen bide berdea eraikitzeko lanak 2012ko bukaera aldera amaituko dira. Proiektuaren ardatza Irun izango da, guretik igaro ez ezik, interpretazio zentroa Santiagoko zubi inguruan kokatuko delako, aduana zaharraren eraikinean, hain zuzen.

Proiektuak Circouldulce izena du eta ibilbidea mugaz gaidikoa izango da, bide berde mota-

ko lehendabizikoa.

Bidearen moldaketak hainbat alorretan onurak ekarriko ditu; besteak beste, mugaz gaidiko kooperazioan, mugikortasun iraunkorrean eta espazioaren erabilera hobean. Ondorioz, turismoaren bultzatzaile izango da.

Guztira 8 milioi (zergarik gabe) inbertituko dira, Europar Batasunak % 65 ordainduko duela.

Jose Angel Sodupe,
Bidasoa Kirol Klubeko presidentea

"Egoera ekonomikoa oso txarra da"

Soldatak nekez ordaintzen dituztela eta zer gerta daitekeen ez dakiela dio presidenteak.

- Zein da Klubaren egoera ekonomikoa?

Argi hitz egin behar da: oso txarra. Aurtengo aurrekontua iazkoaren aldean murriztagoa da; baina, hala ere, asko kostatzen ari zaigu aurreikusitakoari egokitzea.

Oso eskertzekoa da kolaboratzen ari diren enpresen ahalegina, baina ez zaigu iristen. 2010-11 denboraldirako ez dugu babesle pribatu bat bera ere. Erakundeetako diru laguntzei esker nola edo hala moldatzen ari gara; ez da nahikoa, ordea.

- Zer nolako eragina du egoerak kirol alorrean?

Oraingoz egunean gabiltza. Soldatak nekez ordaintzen ditugu. Ez dakit, haatik, bihar zer gerta daitekeen.

Kirol emaitzei dagokienez, helburuak soberan



betetzen ari gara. Taldekideak ahalegitzen ari dira. Taldea oso orekatua da eta ilusio handiz ari da lanean. Hori partiduetan ikusten da.

- Kriaren alderdi ona zera da: harrobiko mutilak sartu direla lehen taldean. Nolako izan da erantzuna?

Erantzuna oso ona izan da. Oraindik hobera egin behar duten jokalaria dira. Bidasoaren etorkizuna izatea espero dugu. Gauza polita izango litzateke Bidasoaren gehiengo bertako jendea izatea, lehenengo garaletan legez.

- Nola bizi dute zaletuek kinka hau?

Bada, denetarik dago: batzuek ulertzen dute eta beste batzuek, ez. Bada zuzendaritza batzordea kritikatzeko duenik eta bada animatzen duenik ere. Nik uste dut gauzak ezin direla egin ari garen baino hobeto egin. Ea behinik behin kirolaren alorrean dena ondo joaten den.



Santiagotarrek klubaren eguna ospatu zuten



Javier Martinez presidentea eta Narciso Iglesias omendua.

Santiagotarrak Kirol Elkarteko kideek bat egin zuten joan den urrian klubaren eguna ospatzeko. Giro apartan, egunari hasiera eman zitzaion klubaren egoitzan egin zen argazki saioarekin. Ekitaldian zehar, azken 40 urteotan klubaren kolaboratzaile handia izan den Narciso Iglesiasi omenaldia egin zitzaion. Elkartearentzako babesle bilaketa eskertzeko oroigarria eman zitzaion, eta bertara bildutakoek txalo beroak eskaini zizkioten. Javier Martinez presidentek kirolari guztiak zoriondu zituen, Kirolaren Irungo Jaialdian

Santiagotarrek klub onenaren saria eskuratu dutelako, Irungo kirol elkarte guztiek hala erabakita. “Zuek zarete sari honen benetako irabazleak; zuei esker kluba goi mailaraino iritsi da eta lorpenen bidez hor mantentzen da”.

Jarraian, kirolariek hain maite dituzten ur jokoen lehiaketa burutu zen. Egunaren azken txanpan 70 kide jatetxe batean bazkaritarako bildu ziren, Belen Sierra Kirol Udal Patronatuko presidentea eta Irungo Udaleko zenbait talde politikoren ordezkari mahaikide zituztela.

Irungo Kirolaren Jaialdian Juanma Garatek kirolari onenaren saria jaso zuen



Taldearen alde banatan, Aitor Gabilondo eta Patxi Perez Bebeventos taldeko antzezlea. Ezkerretik eskubira, Valentin Iglesias Dunboa-Eguzki futbol taldeko presidenteetako bat, Jose Antonio Santano Irungo alkatea, Belen Sierra Kirol Udal Patronatuko presidentea, Juanma Garate txirrindularia, Javier Martinez Santiagotarretako presidentea eta Javier Mariño Mariño Kirol Elkarteko sortzaile eta presidentea.

Irunek hiriko kirolariak lomendu zituen, musika udal kontserbatorioan egin zen 2010eko kirolaren jaialdian, omendu ere. Jende ezagun ugari bildu zen ekitaldira, azken urte honetan nor bere modalitatean nabarmendu diren kirolariak edo klubetako ordezkariak saritzera. Aurten, Irungo kirolarien eta klubuen erabakia izan da jaialdian saria jasoko zutenak aukeratzera.

Jaialdira udal ordezkari asko joan ziren, Jose Antonio Santano Irungo alkatea eta Kirol Udal Patronatuko presidentea Belen Sierra buru zirela. Halaber, oposizioko hain-

bat hautetsik bertatik bertara bizi nahi izan zuten Irungo herriak bere kirolariei adierazi zien esker ona.

Aitor Gabilondo eta Patxi Perez umoregileek girotu zuten ekitaldia, euren txantxetan alkatea ere aipatu zutelarik. Jose Antonio Santanok kirolari irundar guztiez harro sentitzen dela adierazi zuen. Futbola, txirrindularitza eta arrauna izan ziren nabarmendutako kiroleko batzuk. Rabobank taldeko txirrindulari eta Espainiar selekzioko kapitain Juanma Garatek emozioz beterik eskuratu zuen kirolari onenaren saria. Santiagotarrak Klubeko pre-

sidentea, Musku ezizenez ezagunago den Javier Martinez Vesga, izan zen agertokira igo zen bigarren omendua, Klub onenaren saria jasotzera, hain zuzen ere. Mariño Futbol Taldeko sortzaile eta presidentea den Javier Mariñori, kirol zuzendari onenaren saria hartzean, txalo zaparradarik handiena eskaini zioten aretoan bildutakoek.

Azkenik, Valentin Igleasiasek, Dunboa-Eguzki kirol klubeko presidenteetako batek, Kirolaren aldeko laguntza onenaren saria jaso ondoren, bertaratutakoei hitzaldi hunkigarria zuzendu zien.

Kudeaketa integral multiteknikoa

Gestión integral multitécnica



*Mantenua eta instalazioak
Proiektu teknikoak
Elektrizitatea
Telekomunikazioak
Klimatizazioa
Iturgintza
Libraketak*

Tlf: 943 10 20 24

Mantenimiento e instalaciones
Proyectos técnicos
Electricidad
Telecomunicaciones
Climatización
Fontanería
Desatascos

Tlf: 943 10 20 24



Gaztelumendi Antxon, Pintxo Txapelketako finalera iritsi zen

Urrian Hondarribian burutu zen Euskal Herriko V. Pintxo Txapelketan Irungo 5 tabernatako sukaldariek parte hartu zuten. Txapela herrian geratu zen, Gran Soleko Bixente Muñozek jantzi baitzuen. Irabazlearekin batera finalera iritsi zen bidasoar bakarra Irungo Gaztelumendi izan zen.

Euskal Herriko punta-puntako 75 sukaldarik parte hartu zuten Pintxo Txapelketan, gure gastronomiaren luxuzko erakustaldia eskainiz. Epaimahaiak erabaki zaila hartu behar izan zuen, hartu ere, maila oso jasoa baitzen. Azkenean, guztiz hunkitua agertu zen Bixente Muñoz nagusitu zen. Bigarren saria Haritzako mungiarrek eraman zuten, eta hirugarrenak ere Bizkaia aldera egin zuen, Bitoque de Albia bilbotarren eskutik. Irundarren uzta ez da urria izan; Gaztelumendi 10 onenen artean sartzea lortu zuen, eta Sargia finalerdietara pasa zen, 25en artean.

“Gure pintxoak emozioetan, tradizioan eta maitasunean oinarritzen da”

- Bidasoako Gastromia

izena du pintxoak. Nola sortu zen sortzeko ideia?
Felix: Bixente Muñozekin egindako gogoeta baten emaitza da. Ondorioa nire estilo propioko sukaldaritzaz jorratu nahi nuela izan zen, betiere Bidasoako produktua erabiliz. Pintxoak egiteko, bertako barazkiak eta atuna eta Arabako patata baliatzea erabaki nuen. Emozioetan, tradizioan eta maitasunean oinarritutako mokadutxoak da.

- Egiguzu pintxoaren deskribapena.

Wan Tu orekizko eraztun baten gainean patata pure likidoa darama, eta piper eta kalabazin zatitxoak gainean. Tatakia (gutxi egindako atuna) laguntzeko, Tio Pepez eta Martiniz egindako saltsa gehitzen zaio.

- Duela bi urte sari bat irabazi zenuten Euskal Herriko Txapelketan. Aurten aukerak

zenituztela uste zenuten?
Felix eta Angela: Lehenengo kanporaketan pintxoak ez zitzaigulako nahi bezain ongi ateratu, hurrengo fasera pasako ez ginelakoan geunden.

Finalean, berriz, primeran geratu zenez, sariren bat jasotzeko aukerak ikusi genituen. Azkenean 6. egin genuen: sailkapen oso ona, egia esateko.

- Epaimahaiak zer ezaugarri hartu du aintzat?

F eta A: Askok poztu gaitu beste ezaugarrien gainetik zaporea aintzat hartu izan-nak. Horixe da gure lan ildoak, baita txapel-dunarena ere. Hortik gure pintxoaren izena, zeinak zapoaren nagusitasuna adierazten duen.

- Euskal Herriko

Txapelketa bertako produktua dela esan daiteke, Hondarribiko Ostalaritza Elkarteak antolatzen duen heinean.

Zer iruditzen zaizue?

F eta A: Txapelketa bikaina da; giroa, primerakoa, eta maila, oso jasoak. Parte-hartze soila sari bat dela esan daiteke, oso pozgarria delako lanbideko kideekin egotea.

Adorea eta babesak eman digutenei bihotzez esker-rrak eman nahi dizkiegu.

Sargia finalerdietan sartu zen

Sargia tabernaren *Itsasoko Gozoa* izeneko pintxoak 25 onenen artean zegoen. Gaztelumendikoa bezala, honek ere atuna zeukan osagai nagusi.



2011 UDAL HAUTESKUNDEAK

zutik irun

hirigintza

sozioekonomia

kirola

gazteria

euskera

kultura

ongizatea

ingurugiroa

auzoak

berdintasuna



ezkertiarron eta abertzaleon
herri programa osatzeko
HERRI JARDUNALDIAK
abenduak 11 eta 18

Antxeta Irratiak 10. urteurrena ospatuko du

Datorren otsailean 10 urte beteko dira eskualdean esparru komunikatiboa euskalduntzeko xedez Antxeta Irratia sortu zela. X. urteurrenaren karira “Entzun, esan, adierazi... Antxeta Irratia luzaroan bizi!” lelopean kanpaina abiatuko du. Urteurrenaren aurkezpenean, Antxetako langileek kanpainari buruzko zehaztasun gehiago eman zuten: “Irratia entzun, guztiok entzun dezakegun arren, esateko, komunikatzeko eta, bereziki, adierazteko aukera gutxi izaten dugu. Eta hori baino ez da, edo hori guztia da, Antxetak egiten duena; herritarrek, eragile sozialek, elkarteek, komunikabide arruntetan lekurik ez daukatenez komunikatzeko eta adierazteko lekua izan dezaten lan egin”.

Honez gain, beste hainbat ekimen burutuko dituzte; besteak beste, Logo Lehiaketa, Irratinobela Lehiaketa, auto-defentsa tailerrak (azaroan), Antxeta gaua (urriaren 16an Hendaiaiko Kanttu ostatuan), Euskararen eguna (abenduarren 3an, Herri Komunikabideen Aldeko



Prentsaurrekoan, irratiko langile zein kolaboratzaileekin batera Jean Baptiste Salaberry Hendaiaiko alkateak eta Jean Michel Berra euskara zinegotziak parte hartu zuten.

Hitzordua (urtarrilaren 8an), Europa Mailako I. Irrati Topaketak (otsailean) eta Zorion Jaia, otsailaren 14an ospatuko dena.

Gabiria kalea, 15 - 179
Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxa
943 63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIORAKO PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK

Xalbadorren eta Xanpunen omenez Urepelen, maiteminez, barkaminez, maiteminez



Asteburuan Urepelen egon naiz, Xalbadorren eta Xanpunen omenezko ekitaldian.

Xirimiri goxo batez zitzu bizian iritsi nintzen "gasna-bidean", eta berandu... jadanik hasi zuen Idazle Eskolakoon ilunabar literarioa (www.idazten.com), baina Iban, Tere, Axun, Leire eta Igotz lagunaren begirada konplize eta irribarre atseginek hartu ninduten, eta lekutxo bat egin zidaten Urepeleko ikastolaren areto xume hartako gela batean, poesia gosez zegoen jendearen aitzinean. Etxean bezala sentiarazi ninduten denek...

Eta odolari mintzatzen utzi nion larunbat arratsaldean. Bere mintzoa, nire ahotsa Urepelen, ahots sentibera zuen herriko semearen dohaina: bertsoz poesia kantatzea, edo poetikoki bertsoak irutea. Dohaina zuen bihotzetik mintzatzeko fedez, eta poesiak elkartu gintuen gu pasa den larunbateko ilunabarrean, arratseko zazpietatik zortziak bitartean.

Ilunabar poetiko hura amaitzeko, Benito Lertxundiren NIGARRA BEGIAN kantua abestu genuen, eta ondoren, euskal pastela jan genuen. Gero, herriko ostatuan aperitifa, kantu-afariaren zain.

Afaria arratseko bederatzieta zen, eta laguntasun atseginean pasa genuen, solasean eta kantuan, jan-edana mahai gainean: arrain-zopa, piper betekak eta haragia saltsan, ardoz eta uraz bustirik barrenak, eta azkenbururako arrosesnea, kafea eta patxarana. Aire ahizpek Gasteizko trikitalari batzuen laguntzaz animatu zuten ederki kantu-afaria eta ondorengo gutzia...

...euskal jira, bertso bira eta sokatira!

Pixkanaka erretiratzen joan ginen ohera, Urepeleko ikastolaren geletara.

Biharamunean, goizean goiz, xirimiria lagun, Xalbadorren bordara mendi-ibilaldia antolaturik zegoen, eta han abiatu ginen jende-multzo bat mendian gora. Uste baino luzeago eta gogorrago egin zitzaidan (ohitura falta?) malda hartan gora

egitea, XALBADOR etxea pasa eta gora... azkenean, halako batean iritsi ginen "Ene mendiko maitea" etxolara. Han sentitzen zen Xalbador bertsolari poeta gustoen, eta hantxe kantatu genion Xabier Leteren "Nun hago?"... hantxe irakurri nituen Xalbadorren bertso bikain eta hunkigarri batzuk etxola hari kantatuak... eta hantxe zegoen idatzirik "XALBADOR 1920-1976". Ni sortu nintzen urte berean hil zen bera. Etxola haren inguruan zurrumurru isil bat nabari nuen eta laino zuria gehiago sartzen ari zen mendi zoko hartan. Ordura arteko ximiri arina euri bilakatzen ari zen, eta ordu zen mendian behera abiatzeko, galdu nahi ez bagenuen bederen.

Marmarra jendearen ahotan, eta asotsa ene belarrietan, behorren ezkilak eta urtxintxa hila bide bazterrean. Xalbadorren barneak eta ene erraiak bat egiten zuten gurutzearen doloreetan, aunitz maite duenak aunitz sufritzen baitu. Nigarra eta irria nahasten dira, eta nahasketa horrek sortzen duen oroiminak barnea inarrostean dit.

Barneko zurrunbilo horretan eta kanpoko jendearen hotsen artean maldan behera, laino artean, euripean bixi-bixi joan ginen, galtzeko beldurrez, Urepel helburu. Gosaldu gabe abiatu ginen maldan gora, eta maldan behera abiatzerako nekaturik geunden gosea sentitzeko ere, baina halako batean iritsi ginen herrira.

Hantxe bertso-bazkaria zegoen pilotalekuan, eta gose bainintzen bazkari-txartela neureganatu nuen. Bezperako menu bera, baina kantuz beharrean, dantzan eta bertsoan bazkaldtu genuen. Bazkari jendetsua benetan, eta mila-mila esker Deiar Elkartearen lan borondatetsu eskergari nahiz

Euskaltzaindiari. Beste diru-iturriak etenda daude, eta Eusko Jaurlaritzaren krisiaren aitzakiaz euskal kultura oztopatzen, eta oraingoan ere herritarrek egin behar lan aitzina segitzeko! Herria baita gorputza, baina hizkuntza bihotza... bihotzik gabe ez dago bizitzerik, euskararik gabe ez dago herririk.

Xalbador ere ez zen hagitz maitatua bere herrian, Urepelen, baina aunitz maite dut bere sentiberatasuna. Nik ere delikatua baitut ene bihotza, amodioa gauza tristea izateagatik, eta ulertzen dut bertsolari-poetaren dolorea, ulertzen dut zergatik hartu nahi zuen betiko sosegua, eta zergatik nekatu zen haren bihotza sufritzeaz.

Hala ere, bizi naiz, maitemenez, bizimenez, eta bertso-bazkarian Sebastian Lizaso, Uxue Alberdi eta Loidisaletxe aritu ziren Xalbador eta Xanpun bertsolariak omentzen, dakiten modurik onenean. Bertsoan. Lehengo ametsak berritu nahian aritzen gara amets berriak egiten segitzeko.

Nere bihotza ere nekaturik dago aunitz maitatzeaz, eta behar bezainbeste ez jasotzeaz. Baina bizi da oraindik ene bihotza. Damu naiz maitemindu izanaz, baina gertatu zen aspaldi, ezin dugu aukeratu norekin maitemindu, eta niri maitemintzeak bakar-dadea ekarri zidan. Esan nion begietara begiratuz maite nuela... berak, ordea, barre egin zidan eta maitasun inkondizionala eskaini zidan ni abandonatuz, hegan egiten utzi ninduen... nik berarekin batera egin nahi nuen hegan, ez bakarrik. Eta orain banao. Heldu den astelehenean Txekian egonen naiz agur-besarkadarik gabe, esan gabekoak airean utziz... itzuliko naizelako, beharbada?

Olerkari ameslaria



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,
KAMISĒTAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

Heriotzari begira

Trena hartu eta pertsona ezagun baten ondoan eseri eta hitz egiten hasi gara. Oso gaizki zegoen bere lagun mina hil delako. Ze gogorra! Bakarrik bizi eta bakarrik hiltzen garela esan du joan baino lehen. Pentsakor eta apal geratu naiz.

Heriotza: zergatik datorkit zirraraz berezia gorputz barnetik? Zaila da heriotzaz mintzatzea, gai honetaz ez dugu hitz egin, beharbada heriotzaren beldur garelako. Gizarteak heriotza estaltzen du, ez dugu jendea hiltzen ikusten, garai batean bezala. Nola bizi hilko garela gogorarazi gabe, erreala bada, zergatik gorde? Heriotza bizitzaren zatia da, ziurtasunez gertatuko den gauza bakarra. Heriotzaz ez gara mintzatzen, sufrimendua gorde nahi dugulako; baina hau gainditzeko sufrimenduaz hitz egitea ezinbestekoa da.

Ez dugu hil nahi, baina heriotzak harrapatzen gaituenean bizitutakoari begiratu eta alaitasunez, bizitako une ederrak gogoratu, hil behar genuke. Ez genuke beldurrez hil beharko, zer egin ez dugun pentsatuz. Egin dugun gauza eder guztiak gogoratu zorientsu hiltzea merezi dugu.

Lasai hiltzeko gakoa, alde batetik, betidanik heriotza biziaren zati baten moduan ikustean datza eta, bestetik, bizitzan egindako bidea bizi nahi izan dugun bidea dela onartzea. Bizi, biziari ahal dugun guztia kenduz,



bizi garela sentituz. Nahi edo datorkiguna bizitzen dugu, bizitzeko prest bagaude, gure nortasun eta oztupoak onartuz eta hauek gainditzen saiatuz. Bizia sentitzeko, hilko garela jakin behar dugu, eta ez ideia abstraktu bezala, ideia erreal baten sentimendurekin baizik. Ez utzi biharko gaur desiratzen ditugun gauza guztiak: maitasunak, barkamenak, berraur-

kitzeak, doluak.

Horrela, maite dugun norbait galtzen dugunean harekiko dolua hobeki biziko dugu. Nola ez gara triste sentituko maite izan dugun norbait galdu dugunean? Tristura sentitzea ona da, desatsegina, baina beharrezkoa galdu dugun hori onartzeko eta agurtzeko: fisikoki gehiago sentituko ez dugulako, berarekin esperientzia berriak edukiko ez ditugulako, gure bizia berarekin konpartituko ez dugulako. Tristuran eta malakoetan murgiltzea beharrezkoa da errealitate berri hori onartzen joateko eta pertsona horrekiko oroitzen positiboetan egoteko.

Negarrak eta doluak galdu dugun pertsona horrekiko momentu zoriontsuak sentitzera eramango gaitu. Baina dolua zirkularra da; hau da, ez gara tristura sakonean sartzen eta gero ahazten, borobil baten moduan sartu eta ateratzen gara. Badirudi pozik gaudela edo galdu dugun pertsona horren hutsunearekin bizitzen ikasten ari garela, baina



berrero tristuran sartzen gara. Denborak lagundu egiten du eta tristura momentuak motzagoak dira, baina beti dator tristura berrero, galdu dugun guztia onartu behar baitugu.

*kantuz bizi naiz eta kantuz nahi bizi,
kantuz ehorts nazaten hiltzen
naizenean.*

*kantuz ene lagunak harturik airean,
kantuz ariko zaizkit lurrean sartzean,
kantu franko utziko diotet munduan,
kantuz ar diten beti nitaz oroitzian...*

Polita da kantuz hiltzen garela jakitea, beldurrik gabe. Polita da besteek kantuz gogora gaitzaten, alaitasunez gogora gaitzaten. Ederra da maite dugun jendea kantuz gogo-

ratzea, alaitasunez, azken finean, maitasunez.

Ez da inor hiltzen, norbaiten bihotzean bizirik badago. Ezagun horrek, bakarrik bizi eta bakarrik hiltzen garela esan du. Bizia askotan gogorra da, baina gure baitan dago zorientasunaren bidean egotea. Heriotza gogorra da, baina maitatu eta maite gaituzten heinean, ez gaude inoiz bakarrik. Gure bizian maitatu izan dugun eta maite izan gaituen jende guztiarekin hiltzen gara. Bestalde, izugarri maitatu eta galdu ditugun pertsonak ez dira joan, gudan bizitzen jarraitzen dute.

**KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA**

kuttun@kuttun.net

MAITEA

maite maitia,
Eskerrik asko, mila esker
emandako maitasun guztiagatik
eta ondorioz

erakutsi diguzun guztiagatik:
maitatzen,
ulertzen,
entzuten,
barkatzen,
laguntzen,
bestearen lekuan ipintzen,
ematen,
jasotzen,
aberria maitatzen.

Joan zara, hotz zara,
baina zure beroa hemen da,
gurekin dugu.

Erakutsi diguzun guztia egiten dugunean
gurekin zaude,
maitatzean
ulertzean,
entzutean,
barkatzean,
laguntzean,
bestearen lekuan

ipintzean,
ematean,
jasotzen dugun
bakoitzean.

Gurekin zaude,

gudan eta gure seme-alabetan eta

haien seme alabetan baita

hurrengoenetan ere.

Triste egongo gera, dudarik gabe,
zure hutsunea handia izan da,
baina badakigu ere eman duzuna jaso
duzula

eta ez zara bakarrik hil,
emandako maitasun eta

jasotako maitasun guztiarekin joan

zara.

Bete beteta joan zara,

bizian zorientsu,

maitasunaz blai.

Maite maitia,

eskerrik asko mila esker

emandako maitasun guztiagatik,

denagatik.

IZUGARRI MAITE ZAITUGU!

Gozatu bizia biziki, ez gara hemen betirako
eta. Laster arte.

Egun euritsua da. Egun hitsa. Giro hori, zenbaitetan, pertsonok gure aldartea disimulatzeko darabilgun geruza “izaten” da. Geruza euritsuak gure barru hitsa estaltzen du.

Bizitza nola badoan!

Ogia eta egunkariaren eske sartzeko zorian nago denda atarian. Eskalea topatu dut ate ondoan. *Errumaniarra* deitzen diogu. Aldion eskalea haren bikotea da, haren andrea.

Aspaldian ez ditut ikusi, ez emakumea ez gizona.

Dendan sartu eta “negua heldu eta itzuli al da eskale bikotea?” galdetu dut:

Bezero batek erantzun du: “Itzuli da emakumea, gizona presondegian dago”.

– Presondegian?

– Bai, gizonak jipoiu du eta lau hilabeterako sartu dute kartzelan.

Illaran gaude. Zain. Aspaldi ikusi ez dudan lagun bat sartu da:

– Zer moduz?

– Ongi... eta zu?

– Ondo esan beharko!

Barre egin dugu. Honetaz eta hartaz mintzatu gara, gure txandaren zain.

“Zer moduz galdetu eta ‘ondo’ erantzuten dugu, baina ‘bizitza nola doan’ ez diogu zinez elkarri azaltzen. Zaila da gure baitakoa ondo-koari zabaltzea...” pentsatu dut unetxo batez.

Pertsonok, aldian aldi, tokian toki, egoerak egoera, elkar agurtzeko darabiltzagun diosal topikoak azaldu dizkiot lagunari ondoren. Hitz eta pitz...



– Zer moduz?

– Hainbestean!

Azkenaldion erabili ohi dugun agurrik etsigarrienetako bat ere aipatu diogu elkarri:

– Zer moduz?

– Txarra kenduta, ongi.

Egun euritsua da. Egun hitsa. Giro hori, zenbaitetan, pertsonok gure aldartea disimulatzeko darabilgun geruza “izaten” da. Geruza euritsuak gure barru hitsa estaltzen du.

Lagunak, adeitsu, lagun bati ikasitako beste diosal bat irakatsi dit. Ikasi bezala, gaztelaniaz:

– ¿Qué tal?

– ¡Bien...!y te lo cuento.

“Ongi litzateke elkarri esaten dioguna baino gehiago esatea, esateko ahalmena izatea”, pentsatu dut.

Nire txanda da. Egunkaria eta ogia hartu eta agurtu dugu elkar.

Atean *errumaniarra* edo *rom* deitua izaten den emakume eskaleari eskupekoa luzatu diot.

– Ça va?

– Ça va!

Agurretik –eta izenetik– pertsona “izaten” hasten gara.

MIKEL ASURMENDI

Kontrario nobelaren protagonista Pontika auzokoa da. Bidasoatik begiratuta, hor dugu auzoa, gertu. Oreretakoa da Oliveira protagonista, egilea legez. Han-hemenka dabilta biak ala biak.

Hondamenditik aterako da

Raul Oliveira edo Lander Garro. Nobelaren protagonista eta egilea. Garroren *Alter egoa* bide darama Oliveirak. Bien nerabezaren ezaugarria hauxe: eskola porrota. Eskolan porrota jaso duten umeek bi esperientzia ezagutzen dituzte –handi-handika erranik–: hondamendian barrena jarraitu bizitzan edo hondamenditik ateratzeko bidean borrokatzea. “Borrokatzea” eta “bizitzaren aldeko interesa” izatea sinonimoak direnean, porrota jasan duenak etorkizunari aurre egin diezaioke. Ez du eskolako programek diseinatutako “irabazle”aren profileko nortasuna osatuko, baina badu etorkizunik. Raul Oliveira bigarren horietakoa duzu.



Liburua: *Kontrarioa*
Egilea: Lander Garro
Argitaletxea: Susa

Xake jokoaren legera bizi da protagonista: bizitza lehia da, lehia etengabea. Kontrarioak nonahi ezagutu ditu, eskolatik landa, lanean –hasi berria–, baita etxean ere. Bere ama alargunaren bikotea, kasu, kontrario dauka. Lagunen artean ere kontrarioak ditu. Xakean nola, armada osoa du kontrario. Auzoa bera kontrario du Oliveirak.

Xakean nola bizitzan kideak ere baditu protagonistak, halere. Oskar laguna, esaterako. Lagun mina (ondo sentiarazten zaituen laguna da lagun mina). Ez da protagonistaren ingurumarian dabilen pertsona bakarra: neska lagunek berezko tokia dute nobelan, amodioen eta des-

amodioen bidaideak, alegia. Irakasleak ere badaude. Porrota bizi duen irakaslea, kasu. (Bidenabar, erran dezadan, porrota bizi duten ikasleaz usu mintzo dela jendartean, porrota daraman ikasleaz ez hainbeste).

Laguntasunaren nobelaz harago doa istorioa, maitasunaz bestera, sorkuntzaz ari da nobela. Sorkuntzaz edota arteaz. Artea margoa dela, artea irudia dela, artea letrak direla. Letrak, literatura eta nobela hau hizpide, Raul Oliveira nola halatsu dabil Lander Garro idazlea. Ofizioan bide eginez. Liburu proiektu bat dauka Raulek (Landerrek batzu-ba-

tzuk idatzi ditu dagoeneko).

Estiloa badu Landerrek. Berea. Txispa ere badu, berezkoa. Areago, idazle izateko kalea bizi du, Raulek legetxe. Berezko umorea dauka Landerrek, eta berezia, Lander Garro idazleak. Pertsonaien arteko solasak piper eta gatzez on-tzen ditu.

Idazleak kalea eta auzoa bizitzen segitzen badu, letrak landu ahala, berezko idazkera moldatuko du. Bizitzan nola idazle ofizioan borrokatzen badu, “bizitzaren hondamenditik aterako da”. Gainera, agian, bidean bide, ez da literaturaren farfailean lerratuko.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Azaroak 14

- Amaia KZn, 20:00etan, Aukeran Dantza Taldeak *Gernika* izeneko ikuskizuna eskainiko du, euskaraz.



Azaroak 27

- Amaia KZn, 20:00etan, Ezezagunok taldeak Jose Luis Lledo-ren *El Kiosko* antzezlanari aurkeztuko du.

Azaroak 28

- Amaia KZn, 17:00etan, LE TUTIN THÉÂTRE D'IMAGES frantziar taldeak *Línea(s) de horizonte* izeneko antzezlanari eskainiko du, gaztelaniaz.

Antzerkia, txotxongiloak, arte plastikoak eta bideoa uztartzen dituen ikuskizuna.

Azaroak 25

- Amaia KZn, 19:30ean, *Flysch*, *haitzen hitza* izenburuko ikus-entzunezkoa. Egileak: Hasier Hilario eta

Alberto J. Gorritiberea. Hizkuntzak: Euskara eta gaztelania.



Azaroak 12 - Abenduak 12

- Amaia KZn, Irun Hiria XXI. Argazki Lehiaketaren Erakusketa.

Azaroaren 9tik 21era arte

- Euskadiko Kutxaren erakustaretoan, Nagore Arrastuaren margolanak.

Azaroaren 23tik abenduaren 5era

- Euskadiko Kutxaren erakustaretoan, Santi Pelaezen margolanak.

Azaroak 24

- 19:00etan AMAIA KZko hitzaldi-aretoan Adiskidetuak elkarteak

Luis Marianoren omenezko kontzertua



Luis Marianoren heriotzaren 40. urteurrena dela eta, azaroaren 26an, 20:00etan, Amaia KZn, kontzertua, tenore irundarraren omenez. Angel Pazos tenoreak abestuko du, Jose Luis Azkue piano-jotzailea lagun izango duela. Antolatzailea: Luis Mariano Lirika Elkartea. Sarrerak: Bazkideek, 12 euro; bazkide ez direnek, 18 euro.

ondoko MINTZALDIA emango du: "Ulises sindromea: etorkinaren deserrotze emozionala".

Ikust - Alaia Liburutegiko ekintzak

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALA-

RIAK: Azaroaren 10ean eta 17an euskaraz; 24an, gaztelaniaz. Ordua: 17:30ean.

HELDUENTZAKO IPUINAK.

Azaroaren 26an, 19:30ean, gaztelaniaz.



CARLOS DE AGUSTINEN MINTEGIA.

Azaroaren 11n, 17:00etan, *Hamlet*. W. Shakespeare

Azaroaren 25ean, 17:00etan, *Dirigido por* aldizkariaren edukien azterketa.

POESIA TALDEA. Azaroaren 29an, 17:30ean, Alejandra Pizarnik.

IRAKURKETA TALDEA. Azaroaren 30ean, 19:00etan, *Orgullo, prejuicio y zombies*. Seth Grahame-Smith.

LIBROFORUM TAILERA. Azaroaren 22an, 19:00etan, *La cripta de invierno*. Anne Michaels.

IDAZKETA TAILERRA. Azaroaren 16an, 19:30ean, 1go atala.

Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa



Noiz: Azaroaren 16tik 20ra.

Non: Sail ofizialeko filmak Amaia KZn proiektatuko dira, arratsaldez.

Film kopurua: 23.

Antolatzailea: Irungo Udala eta Oiasso Museoa.

Zinemaldi Arkeologikoak 10 urte betetzen dituen honetan, nazioartean ezaguna den lehiaketa bilakatu da jada. Hasierako helburuari jarraiki, arkeologia publiko zabalari hurbiltzea izango du xede.

Tolstoi eta Mozart liburutegian

Leon Tolstoiaren heriotzaren mendeurrena kari, udal liburutegian bi ekintza burutuko dira: Azaroaren 30ean, idazlearen testu sorta baten irakurketa gaztelaniaz, errusieraz eta frantsesez, Esther Barandiaranek pianoz lagundurik. Bestalde, bi erakusketa antolatu dira: Tolstoiaren ingurukoa azaroaren 30etik abenduaren 15era, eta Mozarti eskainitakoa azaroaren 16tik 27ra.



Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- **2011ko IRUNGO INAUTERIAK** iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketaren oinarriak HAZeko bulegoetan jaso daitezke. Epea urtarrilaren 28an amaituko da.

- **KARTEL LEHIAKETA.** Leioako Pop Rock Lehiaketa iragaritzeko, Udalak kartel lehiaketa bat antolatu du. **Baldintzak:** 14-35 urte bitarteko gazteentzat. **Epea:** Azaroaren 30era arte.

- **ANGELUKO AISIALDIAREN UNI-**



BERTSITATEAK Argazki Lehiaketa bat antolatu du. **Gaiak:** Itzala eta argia. **Baldintzak:** Adin guztietako argazkilari amateurrek parte har dezakete. **Epea:** 2011ko otsailak 11.

- **DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO** *Sal a escena!* lehiaketa. **Deialdigilea:** Berdintasun Ministerioa. **Baldintzak:** 16 urte beteta izatea. Honako kategoria hauek daude:

antzerkia, monologoak, abestiak eta film laburra. **Epea:** Azaroaren 25a.



- **"ELKARREKIN HOBETO MOLDATZEN GARA"** goiburuko lehiaketa deitu da. Helburua: Irungo gazteriak emakumeenganako indarkeriaren aurkako lanak aurkez ditzala. Presta ezazu lip dub bat edo spot bat, edo komiki bat, edo grafiti bat, edo kontakizun bat, edo kanta bat, edo bertso bat, edo... Banaka edo taldeka. **Epea:** Azaroak 25. Irabazlea, GIBaren web orrian.

harpidetza

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska izaiguzuz, eta astero bidaliko dizugu informazioa sare etxero nahiz posta elektronikera.

IZEN-ABIZENAK

HELRIDEA

P.N...... **HERRIA**

POSTA ELEKTRONIKOR

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pídenoslo y te enviaremos información personal a tu casa o correo electrónico.

irunero
 Tlf: 843 605 444
 843 605 440



- **FILM LABURREN LEHIAKETA** antolatu du Tres Cantos-eko Udalak. Ikus-entzune-koen alor guztietako nahiz genero guztietako lanak onartuko dira. Epea: Azaroak 23.



- **BEKEN BILA BAZABILTZA, HAU**

DA ZURE GIDA:

<http://www.irun.org/igazte/comunes/contenido.aspx?idioma=2&clave=8905&tipo=&l&dedonde=noticias>

- **2011KO UDAN ATZERRIAN HIZKUNTZAK** ikasteko plazak. Deialdigilea: Eusko

Jaurlaritza. Baldintzak: Deialdi orokorreko beka-onuraduna izatea. Epea: Azaroak 22.

- **EUSKO IKASKUNTZAREN IKERKETARAKO** laguntzak. Gaia: Euskal kulturarekin harremana duen edozein. Epea: Azaroak 30.

Hitz egin ala ekin? Tailerrak

BERdekoratu zure etxea, SAFARI URBANOAN BEReskuratuko den guztia eraldatuz eta BERrerabiliz.

Hitz egin ala ekin?

Lehenengo tailerra:

Azaroaren 24an.

Emaus Gizarte Fundazioaren proiektu bat da, Gipuzkoako Foru

Aldundiak eta Caja

Madrid-ek finantzatu.

Har ezazu parte!

www.estaestuobra.es/emaus/



Gau bat operan

Kabigorrik antolatuta, *Gau bat operan* kontzertua azaroaren 14an 19:30ean izango da. Txelo-jotzailea: Ian Swedlund. Piano-jotzailea: Esther Barandiaran.



Talentua SOS

Graffitiak egiten ona al zara? Ala gitarra jotzen? Zure argazkiak nonbait erakutsi nahi dituzu? Ez gorde zure talentua etxean eta zabaldu mundura!

www.zureiragarkiak.net



Gazte Informazioa

Facebook-en

Irungo Gazte Informazio Bulegoak badu bere espazioa Facebook-en.

Jarrai gaitzazu!





PROGRAMAZIOA

2010-2011

Txingudiri buruzko programak

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:30-9:00	Euskadiko berrien laburpena	Euskadiko berriak (Errepikap.)			
9:00-9:30	Txingudiko berrien laburpena	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
12:30-13:30	Foro Abierto (Errp.)	Tiempo Real (Errp.)	Gipuzkoako gaiak (Errp.)	Foro Abierto (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
13:30-14:00	Txingudiko berrien laburpena (Errp.)	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
17:30-18:30	Foro Abierto (Errp.)	La Banatua (Real Union) (Errp.) 17:30-19:00	Tiempo Real (Errp.)	Hablando Claro (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
20:30-21:00	Euskadiko berriak				
21:00-21:30	Txingudiko berriak				Asteko berrien laburpena
21:30	La Banatua (Real Union) 21:30-23:00	Euskadiko magazina 21:30-22:30			Zinea
		Tiempo Real 22:30-23:30	Hablando Claro 22:30-23:30	Micrófono Abierto 22:30-23:30	
Larunbat eta igandeetan					Larunbatetan
12:00-1400 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena		20:30-22:30 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena			18:00-19:00 Micrófono Abierto (Errp.)



Biltegi eta bulegoak:
Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoen biltegia.
- Lanpara erakusketa.